



Esp. kodea: 2018SMOZ0007
Titularra: EAJ-PNV

Gaia: AURKEZTEA KATALUINAREN EGOERAREN
INGURUKO MOZIOA.
Hasiera data: 2018/04/12

MOZIOA

CATALUNYAREN EGOERA MOZIOA EAJ-PNV

1. Arrasateko Udalak bere kezka eta gaitzespen irmoa azaltzen ditu Auzitegi Gorenak agindutako hainbat politikari katalanen atxiloketarik. Ohiz kanpoko neurri horiei gehitu behar zaie, gainera, Oriol Junqueras, Joaquin Forn, Jordi Sánchez eta Jordi Croixat jasaten ari diren prebentziozko espetxeratzea. Hori ere irmoki gaitzesten du, oinarriko printzipio demokratikoak urratzen dituen neurria izateagatik.
2. Arrasateko Udalak herritarrek hautatutako kargudunen espetxeratzeak salatzen ditu. Haien eskubide politikoen jarduna galarazten ari zaie, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak Jordi Sánchez-en kasuan bistako egin duen bezala. Halaber, guztiz kezkatuta, bat egiten du jardun judizial horien inguruan Amnistia Internacional-ek eginiko balorazio kritiko eta zorrotzarekin, non leporatutako karguak, prebentziozko espetxeratzea eta epaitzeko moduak ez ohikotzat, gehiegikotzat edota neurritz kanpokotzat jotzen diren.
3. Arrasateko Udalak bere babeseta eta elkartasuna adierazten die atxilotuak eta espetxeratuak izan diren lagunei, baita haien senitartekoei, alderdi politikoei, eta noski, gizarte katalanari eta guztiak berehala libre uztea exijitzen du.
4. Arrasateko Udalak bere ezinegona adierazi du Kataluniako blokeo eta desadostasun politikoaren inguruan. Konstituzioko 155. artikulua bidegabeko aplikazioaren bitartez gizarte katalanari bere burua gobernatzeko aukera kendu eta ukatu zaion egoera baten aurrean, oso zail edota ulergaitzak dira lehendakari bat izendatzeko dauden zailtasunak. Are gehiago herritarrek egunerokotasuneko arazoei aurre egiteko behar bezalako gobernu baten beharra dutenean.
5. Arrasateko Udalak egungo egoera desblokeatu, arazoari irtenbidea eman, 155. artikulua aplikazioa bertan behera utzi eta erakunde kataluniarren funtzionamendua ahalbidetzeko normaltasun demokratikoa berreskuratzeko, Kataluniako alderdi eta eragile politikoen arteko berehalako elkarrizketa bideak irekitzeko beharra berretsi du, joan den abenduaren 21eko hauteskundeetan herritarrek erakutsitako borondate eta nahia oinarri gisa hartuz.